



# hauspotu

## Zertarako sortu da Hauspotu?

Galdakoztarren hizkuntza-eskubideen berri hedatzeko, herritarren hizkuntza-eskubideen urraketa, iradokizuna edo esker ona bideratzeko eta euskarari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitzeko sortu dute Hauspotu ekimena BAGABIZ euskara elkarteak, BINKE komunikabideak eta Galdakaoko Udalaren Euskara Arloak.

## ¿Quién está detrás de la iniciativa?

La iniciativa Hauspotu surge de la colaboración entre la asociación BAGABIZ, el medio de comunicación BINKE y el Área de Euskera del Ayuntamiento de Galdakao. El proyecto tiene como objetivos principales: la difusión, la canalización de la vulneración, la sugerencia o el agradecimiento de los derechos lingüísticos de la ciudadanía y aumentar tanto la percepción positiva como la visibilidad del euskera.



*Bagabiz!*

 Galdakao<sub>ko</sub>  
Udala

**Binke!**



Euskara hizkuntza gutxitua da bere herrian, hizkuntza hegemonikoez inguratuta —gaztelania eta frantsesa— eta egoera zaugarrian dagoena. Horregatik, hizkuntza aniztasuna eta berdintasuna babesteko ezinbestekoak dira botere publikoek eskaini ditzaketen araudi eta neurri positibo guztiak. Horretarako, euskararen normalizazio prozesuak ezinbesteko du gizarteko esparru guztietan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuak izatea».

Hala dio Euskalgintzaren Kontseiluak kaleratu duen Protokoloaren hasierak (azaroa, 2023). Horregatik, Galdakaon ere protokolo bat abian jartzea erabaki da, bai eremu publikoan zein pribatuan, galdakoztarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko asmoz. Protokolo berri horrek Hauspotu du izena.

Hauspotu ekimena BAGABIZ euskara elkartearen, BINKE komunikabidearen eta Galdakaoko Udaleko Euskara Arloaren arteko lankidetzatik sortu da. Hiru helburu nagusi ditu proiektuak: galdakoztarren hizkuntza-eskubideen berri hedatzea, herritarren hizkuntza-eskubideen urraketa, iradokizuna edo esker ona bideratzea eta euskarari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna udalerrian handitzea.

Beraz, herritarren batek hizkuntza-eskubideen urraketarik salatu, iradokizunik egin edo esker ona erakutsi gura badu, Hauspotu ekimena izango du eskura, orain arteko bideez gainera: Elebide eta Behatokia. Eta behin urrats hori emanda Hauspotu Protokoloa jarriko da martxan.

\*Ustez urraketa egin duenak laguntza jasoko du

\*Herritarren anonimotasuna eta Datuen Babeserako Legea bermatuko da

## herritar guztiek dute...

Euskara hitzez eta idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea

Enpresa eta establezimenduekin euskara erabiltzeko eskubidea

Ikasketak eta lana euskaraz egiteko eskubidea

Erakunde publikoetan euskaraz artatua izatekoa

Edozein batzarretan euskaraz egiteko eskubidea, baita eremu pribatuan ere

## hizkuntza-eskubideen urraketa edo esker ona aurkezteko...

Hauspoturekin harremanetan jarri

Hauspotu Protokoloa aktibatuko da

Eskubidea eta gertatutakoa aztertuko da

Eman beharreko erantzuna adostuko da

Hirugarrenari erantzunaren berri emango zaio

## zelan hauspotu hizkuntza-eskubideak?



680 74 32 11

WhatsApp edo Telegram bidez BINKEra idatzita edo audio-mezua bidalita. Kontsultak, iradokizunak eta esker onak adierazteko baina ez. Salaketa bat bide honetatik jasotzen bada, informatibotzat hartuko da baina salaketa-mezua bidali duen horri Protokoloa modu ofizialean nola aktibatu azalduko zaio.



[binke.eus/hauspotu](https://binke.eus/hauspotu)

Formularioa beteta BINKEren webguneko Hauspotu ataletik Kexak, kontsultak, iradokizunak eta esker onak.

